# Babesik eza

**1** Begiratu Emoziotegiko 58-59. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

- Zer pertsonaia agertzen da irudian?

_______________________________________________

- Uste duzu lehen beste norbaitekin zegoela? Zergatik?

_______________________________________________

- Nola uste duzu sentitzen dela? Markatu egokiak iruditzen zaizkizun hitzak.

| | | |
|---|---|---|
| ☐ triste | ☐ errudun | ☐ zoriontsu |
| ☐ bakarrik | ☐ babesik gabe | ☐ nahasita |
| ☐ lasai | ☐ bare | ☐ harrituta |

**2** Zer uste duzu egingo duela irudiko pertsonaiak gero (Emoziotegiko 58-59. orrialdeak)? Idatzi.



_______________________________________________

_______________________________________________

_______________________________________________

_______________________________________________

_______________________________________________

_______________________________________________

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

## 3

Irakurri Emoziotegiko 58. orrialdean **babesik ezari** buruzko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra),** dagokionaren arabera.

- ☐ Babesik eza babesa falta izatearen sentsazioa da.
- ☐ Babesik eza sentsazio tristea da.
- ☐ Inor ez da joaten babesik ez duen norbaiti laguntzera.
- ☐ Zure lagunen laguntza duzunean, babesik ez duzula sentitzen duzu.

- Orain, zuzendu esaldi okerrak.

______________________________________________

______________________________________________

## 4

Lerro bakoitzean, azpimarratu lehenengo hitzaren esanahi bera duen hitza.

- babestu → aurre egin lagundu ihes egin astindu
- gertatu → irudikatu jazo itxaron babestu
- lagundu → babestu gorde argitu pentsatu

## 5

Zer esan nahi du **urpetu** hitzak? Hautatu.

- ☐ Leku bat gauzaz betetzea.
- ☐ Leku bat urez betetzea.
- ☐ Leku bat jendez betetzea.

- Orain, inguratu **bete** esan nahi duten beste hitz batzuk.

ase gainezkatu hondatu suntsitu mukurutu asebete

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

**6** Irakurri egoera, eta erantzun galderei.

Bittor hondartzan jolasten ari da, hondarretan. Zulo handi bat egin du, eta hankak han lurperatu ditu. Baina orain ezin da irten. Garrasi egin du laguntza eske. Baina haren familia oso urrun dago, eta ez dute entzuten.

- Zer gertatzen zaio Bittorri? Laguntza behar du? Zergatik?

______________________________

- Laguntza eskatu al du Bittorrek? Zer emaitza lortu du?
  - ☐ Inork ez dio lagundu nahi.
  - ☐ Badirudi inor ez dela ohartzen gertatzen zaionaz.
  - ☐ Haren familiak badaki zer gertatzen zaion, baina uste dute Bittorrek bakarrik moldatu behar duela.
- Bittorrek ez du lortu bere familiaren laguntza. Zer egin dezake? Uste duzu beste norbaitengana jo dezakeela?
  - ☐ Ez; bere familiak laguntzen ez badio, ez dio beste inork lagunduko.
  - ☐ Ez; bakarrik moldatzen ikasi behar du.
  - ☐ Bai; hondartzan dagoen beste pertsonaren bati eska diezaioke laguntza.
- Uste duzu Bittor **babesgabe** sentitu dela? Zergatik? Zer egingo zenuke zuk haren lekuan bazeunde?

______________________________

______________________________

______________________________

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

## 7 Irakurri egoera, eta erantzun galderei.

Uxue auzoko agure baten beldur da. Gizon nagusi bat da, beltzez janzten dena, txapela eta bastoia dituena eta beti marmarrean barre egiten duena. Baina Uxue ez da ausartzen amari ezer esaten. Uste du hark ez diola garrantzirik emango. Azken finean, bere aitona ere gizon nagusi bat da eta bastoia du... Uxue amesgaiztoak izaten hasi da.

- Uste duzu Uxue babesgabe sentitu dela? Zergatik?

___

___

- Zer egingo zenuke zuk Uxueren egoeran bazeunde?

___

___

- Zer gerta liteke Uxuek bere beldurrari buruz amarekin hitz egiten badu?

___

___

## 8 Idatzi zerrenda batean egunero ikusten duzun jende ezezaguna. Uste duzu pertsona horietakoren bat babesgabe sentitzen dela? Inguratu zure zerrendan.

Kale-garbitzailea, kioskoko saltzailea...

___

___

© Palabras Aladas, SL, 2017  Material fotokopiagarria.

**9** Pentsa ezazu Emoziotegiko 58-59. orrialdeetako irudiko protagonistak mezu bat idatz dezakeela. Erantzun galderei.

- Uste duzu laguntza eske idatziko lukeela? Zergatik?

______________________________________________

______________________________________________

- Nola uste duzu iritsi dela une honetan dagoen egoerara?

______________________________________________

______________________________________________

- Nori uste duzu idatziko diola mezua?

______________________________________________

______________________________________________

**10** Idatz ezazu irudiko protagonistak bidal lezakeen mezua (Emoziotegiko 58-59. orrialdeak).

______________________________________________

______________________________________________

______________________________________________

______________________________________________

______________________________________________

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

# Babesik eza

## Oharrak

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.